

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**259/2022 Foru Agindua, uztailaren 7koa. Hastea Aiarako udalerrian kokatuta dagoen eta Arespalditzako herriarena den “Bagaza eta Ungila” izeneko onura publikoko 22 mendiaren mugaketa partziala eta mugarritze espedientea**

“Bagaza eta Ungila” izeneko onura publikoko 22 mendia Arespalditza herriarena da eta herrigunetik mendebaldera dago, Aiarako udalerrian, Arabako probintzian. Iparraldean eta ekialdean, jabetza partikularrekin egiten du muga; hegoaldean, Izoriako “Asnos” onura publikoko 19 mendiarekin eta Menoioko “Asnos eta Campo de la Ermita” onura publikoko 20 mendiarekin; mendebaldean, Kexaako “Arana eta Urichana” onura publikoko 15 mendiarekin eta Menoioko “El Espinal” onura publikoko 31 mendiarekin.

“Asnos eta Campo de la Ermita” izeneko onura publikoko 20 mendia 2015ean mugatu eta mugarritu zen “Bagaza eta Ungila” onura publikoko 22 mendiarekin mugakide zen zatian. Bestalde, OPko 22 mendiak OPko 15 mendiarekin eta OPko 19 mendiarekin dituen mugak kontzeju erroetatik igarotzen dira. Lerro horiek 2012ko ekainean egin ziren, eta behin betiko onetsi ziren abuztuaren 7ko 242/2018 Foru Arauaren arabera (242/2018 Foru Araua, Aiarako udalerriko kontzejuak mugatzeko lanak behin betiko onesten dituen; 2018ko abuztuaren 29ko ALHAOn argitaratu zen). Beraz, ez da egingo OPko 22 mendiaren mugaketarik mendebaldetik eta hegoaldean, mendia jada mugatuta baitago.

Ondorioz, 2022ko uztailaren 5ean, Mendi Zerbitzuak proposatu zuen, Arespalditzako Administrazio Batzarrak eskatuta, has zedila prozedura Arespalditzako herriaren jabetzakoa den eta Aiarako udalerrian kokatuta dagoen “Bagaza eta Ungila” izeneko onura publikoko 22 mendiaren mugaketa partziala eta mugarritzea egiteko.

Nahitazeko txostenak aztertu dira, eta kontuan hartuta zer xedatzen duten Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluek eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren dagozkien artikuluek, eta Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiaren sailak 2019-2023 legegintzaldirako zehazten dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arespalditzako Administrazio Batzarrak eskatuta, 212/22 espediente zenbakiarekin izapidetuta, Arespalditzako herriaren jabetzakoa den eta Aiarako udalerrian dagoen “Bagaza eta Ungila” izeneko onura publikoko 22 mendiaren mugaketa partziala eta mugarritzea egiteko prozedura hastea. Mendi horren mugak, Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogoaren arabera, eranskinean jasotakoak dira.

Bigarrena. Erabakitzen da mugaketa egoeran dagoela adieraztea Aiarako udalerrian dagoen eta Arespalditzako herriarena den “Bagaza y Ungila” izeneko 22 zenbakiko onura publikoko mendia. Adierazpen horrekin ez da murrizketa berezirik ezartzen.

Hirugarrena. Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan eta otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren bidez onetsitako Mendien Arautegian aurreikusitakoaren arabera, ediktu hau argitaratu eta 45 egun naturaleko epean mendiaren jabetzarako edo haren zati baterako eskubidea duten pertsonak eta mendiei dagokiena egiaztatu nahi duten mugakideek, dagozkien

agiriak aurkeztu beharko dituzte, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuari zuzenduak, bai telematikoki, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa edo beste administrazio publiko baten erregistro elektronikoa, bai Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001, Gasteiz), Aiarako Udalaren bulegoetan (Eliza auzoa 2, 01476, Arespalditza), bai Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 16.4 artikuluan ezarritako beste edozein erregistroan.

Neurketa lanak hasteko eguna dagokion lekuan eta egunean iragarriko dira eta mugakide ezagunei edota katastroan daudenei pertsonalki jakinaraziko zaie. Egintza horretara joan beharko dute mugakideek eta interes legitimoa dutela egiaztatzen duten pertsonak. Neurketa lanetara aurkezten ez direnek edo legezko ordezkari edo borondatezko bat igortzen ez dutenek ezingo dute gero erreklamaziorik aurkeztu, hargatik eragotzi gabe alegazioak jabetza erregistroan inskribatutako tituluekin batera aurkezten dituztenek izan dezaketen eskubidea.

Laugarrena. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente hau ebazteko ezarritako epea 3 hilabetekoa da, eta epe hori esanbidezko ebazpenik gabe igarotzen bada, iraungi egingo da.

Bosgarrena. Ebazpen hau prozedurako interesdun ezagun guztiei jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bat etorritik Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan xedatutakoarekin, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatutakoarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 7a

*Nekazaritza foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**

## ERANSKINA

Onura Publikoko 22 mendiaren mugak "Bagaza eta Ungila":

Iparraldean: Respaldizaren jabetza partikularrak.

Ekialdean: Izoriako mendia.

Hegoaldean: Menoyo mendia.

Mendebaldean: Menoyo eta Kexaako mendiak.